

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

**BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUATUA
GRADUADO EN EDUCACIÓN SECUNDARIA**

PROBA LIBREA/ PRUEBA LIBRE

KOMUNIKAZIO-EREMUA / ÁMBITO DE COMUNICACIÓN

**EUSKARA ETA LITERATURA
LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA**

2024ko azaroa /noviembre 2024

IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:

SINADURA/ FIRMA:



Proba honek bi atal ditu: bata testuaren ulermenari eta hizkuntzaren ezagutzari lotua; eta bestea, idazmenari. Atal bakoitzak bost (5) puntu balio du.

Idazmenean, gai beraren inguruko bi testu proposatzen dira: luzea eta laburra. Azterketariak aukeratu du zein idatziko duen euskaraz eta zein gaztelaniaz. Testu bakoitzak 5 puntu balio du*. Hizkuntza bakoitzaren azterketaren emaitza kalkulatzeko, bi atalen arteko batzbestekoa egingo da:

- Testuari lotutako galderen puntuazioa (5 puntu)
- Idazmenaren puntuazioa (5 puntu)

Gaztelania eta literatura proba ere modu berean baloratuko da.

* Idazmenean, testu bat euskaraz eta bestea, gaztelaniaz idatzi behar dira. Bi testuak euskaraz edo biak gaztelaniaz idatziz gero, baliogabetu egingo litzateke idatzi ez den hizkuntzaren idazmen atala.

En esta prueba se puntuará de manera separada la expresión escrita del resto de las cuestiones. Las primeras siete cuestiones sobre el texto se puntuarán con un total de 5 puntos.

La expresión escrita, por su parte, se puntuará también con un máximo de 5 puntos. El texto que el alumno escoja para escribir en castellano, ya sea el texto corto o el texto largo, se puntuará con 5 puntos, por lo que la puntuación total del examen de Lengua Castellana saldrá de la media de las dos puntuaciones:

- Puntuación de las cuestiones sobre el texto
- Puntuación de la expresión escrita

La prueba de euskara se valorará de la misma manera.

En el caso de que algún alumno o alumna escriba los dos textos en castellano o en euskara, solo se puntuará uno de ellos, quedando sin puntuación el apartado correspondiente a la otra lengua.



JARRAIBIDEAK

1. Irakurri arretaz testuak eta galderak.
2. Galdera bakoitzaren alboan dator puntuazioa.
3. Saiatu galdera guztiei erantzuten.
4. Idazmenaren atalean bi testu idatziko dituzu: bata euskaraz; eta bestea, gaztelaniaz. Zeuk erabakiko duzu zein idatziko duzun euskaraz eta zein gaztelaniaz.
5. Bukatutakoan, zure erantzunak berrikusi eta akatsak zuzendu: erreparatu ortografiari eta puntuazio zeinuei. .

INSTRUCCIONES

1. Leed, con atención, el texto y las preguntas.
2. Intentad contestar todas las preguntas.
3. Al lado de cada pregunta se expresa la puntuación correspondiente.
4. En el apartado de Expresión Escrita se deben escribir dos textos, uno en castellano y otro en euskera. Es necesario decidir cuál se escribirá en euskera y cuál en castellano.
5. Revisad de nuevo lo escrito y corregir los posibles errores. Tened cuidado con la ortografía y la presentación.



1ª PARTE

LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA

2024ko azaroa /noviembre 2024

IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:

SINADURA/ FIRMA:

¿Somos los padres capaces de educar a nuestros hijos sin estereotipos de género?

Los micromachismos son una realidad en muchos hogares, pero se pueden corregir para conseguir el reto de criar en igualdad desde el principio



[CAROLINA GARCÍA](#) [09 MAR 2019 - 10:07 CET](#)

¿En qué momento podríamos situar la aparición del machismo a la hora de educar a nuestros hijos? Realmente, ¿somos capaces de criarlos en igualdad y sin estereotipos de género? Seguramente muchos de nosotros pensemos que lo estamos haciendo bien, pero según los expertos hay cosas que se nos escapan. Y estas cosas son los micromachismos, esas sutiles actitudes y comportamientos que realizamos de forma cotidiana y en las que no entramos a valorar si son machistas o no.

Son aptitudes que seguramente nos han inculcado desde la infancia y de las que no nos percatamos pero que, según los expertos, pueden configurar la mente futura de nuestros pequeños hacia una forma de comportarse que empiece a alejarse de la igualdad desde edades muy tempranas. Son cosas tan comunes como el color de la ropa, el juguete que elegimos en Navidad o cómo repartimos las tareas del hogar, cosas en las que no reparamos porque nos salen de forma automática.



Un niño fríe un huevo. **GETTY**



¿Cómo evitarlo y cuáles son los micromachismos que más usamos en el hogar?

- **Todos ayudamos con las tareas del hogar:** involucrar a los niños en las tareas del hogar nos permite fomentar la autonomía y el sentido de la responsabilidad entre los más pequeños. En este sentido, debemos involucrar por igual a los hijos y a las hijas.
- **Juguetes:** los juguetes no deberían ser productos exclusivos de un género y no deberían limitar la creatividad y el desarrollo de las capacidades.
- **Las niñas también pueden marcar goles:** Las niñas pueden ser tan buenas en los deportes como los niños, solo hay que darles la oportunidad de desarrollar sus habilidades. Cada vez hay más niñas que juegan al fútbol, deporte tradicionalmente masculino. Hay que facilitar espacios de juegos comunes, compartidos, donde sean respetadas en su deseo de jugar también al fútbol.
- **Profesiones:** las profesiones tampoco tienen género. Podemos animar a niños y niñas a que puedan desear ser lo que quieran, a que sueñen con aquello que les fascina o admiran, y ofrecer ejemplos de hombres y mujeres que puedan ser referentes en esa profesión: desde mujeres policías, astronautas o científicas a hombres enfermeros, cocineros o modistos.

Quedémonos con esta idea de la experta. “Para educar en igualdad primero tenemos que aprender a conocer y detectar en nosotros mismos, los padres y madres, los micromachismos que pueden estar condicionando nuestra manera de comportarnos

https://elpais.com/elpais/2019/03/07/mamas_papas/1551962535_507747.html#?rel=mas



1. Indique el género textual (anuncio, noticia, reportaje, artículo de opinión...) y razone su respuesta. (1 pts)

2. ¿Dónde puede estar publicado este texto? Dé dos razones que apoyen su respuesta: (0.5 pts)

3. Exprese en una frase (máximo 2 líneas) el tema central del texto (0.5 puntos)

4. Teniendo en cuenta el texto, diga si la siguiente afirmación es verdadera o falsa y explique el porqué de su respuesta (0.5 pts)

“Para educar en igualdad no es necesario tener en cuenta la forma en que nos comportamos los padres”



5. De acuerdo con el texto, ¿Qué es lo primero que debemos hacer como padres para educar en igualdad? (0.5 pts)

6. Sustituye los términos subrayados por sinónimos, (con un sinónimo es suficiente) teniendo en cuenta el sentido que tienen en el texto (1 punto)

nos han inculcado desde la infancia
que más usamos en el hogar?
con aquello que les fascina
condicionando nuestra manera de comportarnos

7. Relacione (uniendo con flechas) a cada obra y autor con uno de los diferentes movimientos literarios de la literatura española (1 pto)

Romanticismo	“La casa de Bernarda Alba” Federico García Lorca
Generación del 98	“Niebla” Miguel de Unamuno
Generación del 27	“El Lazarillo de Tormes” Anónima
Renacimiento	“Rimas y Leyendas” Gustavo Adolfo Becquer
Edad Media	“El Cantar del Mío Cid” (Anónimo)



2. ATALA

EUSKARA ETA LITERATURA

2024ko azaroa / noviembre 2024

IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:

SINADURA/ FIRMA:



2024/10/06
AMAGOIA MUJIKA
IRITZIA

Lagunak

Zenbat handitu zaren! Honezkero *nobia* pila bat izango dituzu!». «Zure semea 'ligoi' bat da, beti neskaz inguratuta ikusten dut». Hamar urte betetzerako, zenbatek entzun ote dituzten horrelakoak. Ez dakit zein unetan eta zergatik erabaki genuen neskato bat eta mutiko bat lagunak izatea normaltasunetik kanpo kokatu beharra zegoela.

Eskolako jolastokietan, batzuk futbolean jo eta su. Besteak, futbolak baimendutako bazterretan, hitz eta pitz. Normalean, mutilak alde batetik eta neskak bestetik. Mutilen artean gustura aritzen diren neskak, 'marimutilak'. Nesken artean ondo moldatzen diren mutilak, 'arrarotxoak' edo edo 'ligoiak'. Mundua ikusteko modu estua.

Oso umetatik eta nahiko nabarmen, mundua bitan banatzen da, mutikoen eta neskatoen artean marra potolo bat marraztuz. Zuek, han; gu, hemen. Bi planeta desberdinekoak balira bezala, bakoitzak bere koloreko pozak eta minak balitu bezala. Ematen diren hurbilpenak ez dira oso osasuntsuak. «Nahi duzu nire *nobia* izan?». Eta hortxe, umetatik bikotetan antolatuak, elkarri begiratzeko adorerik gabe askotan, baina jendarte txiki horren begietara, bikote. Dena bere tokian.

Nerabezaroan normalean kontua ez da hobetzen. Hormonen matxinada betean, lanbrotsuagoa da tentsio sexualik gabeko neska-mutikoen arteko harremanak imajinatzea. Eta, gero, noski, besteek nola ikusten zaituzten ere garrantzitsua da. «Lagunak gara». «Bai, bai, lagunak...». Ikaragarria da besteen begiradak noraino eraikitzen eta deseraikitzen gaituen.

Helduagoak ere, segur aski, ez dira libratzen. Zenbat laguntasun hautsi ote diren gizonezko eta emakumezko batek 'lagunak baino zerbait gehiago' ote ziren probatu nahi izan dutelako. Lagunak izate hutsa hain arraroa al da bada? Ez ote dugu borratu umetan gure artean marraztutako marra potolo hori?

Neskak eta mutilak nahasten dituzten kuadrillak behar ditugu. Neskatoei futbolean jo eta su aritzeko orduak falta zaizkie; mutikoei hitz eta pitz aritzekoak. Baina, lagunarte bat osatzen dutenean, gauza zoragarriak gertatzen dira: sekretuak partekatzen dituzte, barre egiten dute, negarra eusten diote elkarri, hilekoaz hitz egiten dute, zein eder dauden esaten diote elkarri, haserretu egiten dira, eztabaidatu egiten dute, elkar interpelatzen dute... parez pare eseri eta elkarren ondoan hazten dira, planeta bereko lagunak direlako. Ez dirudi hain zaila denik, ez dezagun tratatu.

Egokitua. https://www.naiz.eus/es/hemeroteca/7k/editions/2024-10-06/hemeroteca_articles/lagunak-3



1. **“Zenbat handitu zaren! Honezkero nobia pila bat izango dituzu!”** Nork esaten ditu, zure ustez, horrelako esaldiak? (0.25 puntu)

2. **“Ez dakit zein unetan eta zergatik erabaki genuen neskato bat eta mutiko bat lagunak izatea normaltasunetik kanpo kokatu beharra zegoela”.** Zer adierazten da esaldi honetan? (0.25 puntu)

- A. Baieztapen objektiboa.
- B. Iritzia.
- C. Hipotesia.
- D. Informazioa.

3. **Zer esan nahi du: “...futbolak baimendutako bazterretan...”** (0.25 puntu)

- A. Futbolean jolasteko erabiltzen ez diren espazioetan.
- B. Futbola ikusteko erabiltzen diren espazioetan.
- C. Futbolean aritzen diren bazterretan.
- D. Futbol-zelaietako bazterretan.

4. **Zer esan nahi du artikuluaaren esaldi honek: “Oso umetatik eta nahiko nabarmen, mundua bitan banatzen da mutikoen eta neskatoen artean marra potolo bat marraztuz.”?** (0.5 puntu)



5. Nerabezaroan jendeak sinesten al du mutilak eta neskak lagunak direla?
(0.5 puntu)

6. Heldutasunari buruz, idazleak honako hau dio: (0.25 puntu)

- A. Borratu da umetan marraztutako marra potoloa.
- B. Emakumezko eta gizonezkoen arteko laguntasunak beti hausten dira.
- C. Emakumezko eta gizonezkoen arteko laguntasunek jarraitzen dute arazoak izaten.
- D. Emakumezkoak eta gizonezkoak ez dira libratzen, beti dira zerbait gehiago.

7. Zer egin behar da neska eta mutilen arteko banaketa horrekin hausteko?
(0.5 puntu)

8. Zergatik dio idazleak amaieran: “ *Ez dirudi hain zaila denik, ez dezagun trabatu.*” (1 puntu)



9. Artikulu honek informazioa ematen du edo idazlearen ustea adierazten du?
Zertan ikus daiteke testuan? (0.5 puntu)

10. Lotu testuko hitz hauek beren sinonimoekin, adibidean bezala. (1 puntu)

Testuko hitzak	Sinonimoak
Baimendu	Altxamendu
Hurbilpen	Onartu
Matxinada	Eratu
Eraiki	Oztopatu
Trabatu	Gerturatze



3. ATALA

IDAZMENA / EXPRESIÓN ESCRITA

EUSKARA ETA LITERATURA LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA

IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:

SINADURA/ FIRMA:



<p>Atal honetan, bi testu idatziko dituzu: bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Testuak gai berari buruzkoak dira; hala ere, desberdinak dira, bai luzeran, bai testu-generoan. Zuk aukeratuko duzu zein idatziko duzun euskaraz eta zein gaztelaniaz.</p> <p>KONTUZ! Testuetako bat euskaraz idatzi behar duzu; eta bestea, gaztelaniaz. Biak euskaraz edo biak gaztelaniaz idazten badituzu, ez da kontuan hartuko atal hori.</p>	<p>En este apartado de la prueba debe escribir dos textos, uno en euskera y otro en castellano. Los textos tratan sobre el mismo tema, pero son de diferente extensión (uno corto y otro largo) y de diferente género textual. Debe elegir qué texto va a escribir en castellano y cuál en euskera.</p> <p>Pero, CUIDADO, es necesario escribir un texto en cada lengua. Si los dos están escritos en castellano o en euskera, no se tomará en cuenta este apartado en la puntuación de la prueba.</p>
---	---

TESTU LABURRA (5 puntu)	TEXTO CORTO (5 puntos)
<p>Email-a idatziko diozu zure lagun bati. (90-100 hitz)</p> <p>Egoera. Neska eta mutilen arteko harremanak gero eta zailagoak dira. Alde batetik gizartearen presioak daude; bestetik, digitalizazioak ez du laguntzen harreman erreala izaten.</p> <p>Ataza. Email bat idatziko diozu zure lagunari neska eta mutilen arteko harremanei buruzko hitzaldi batera joateko konbentzitu nahian. Azaldu iezaiozu gaiaren garrantzia, gizarteak egiten duen presioa, adin guztietan sexu ezberdinen artean adiskidetasun harremanak izateko dauden zailtasunak. Argi utzi gai honetaz informazioa izateak duen garrantzia gizartearen eraginei aurre egiteko.</p> <p>Testuak 90-100 hitz eduki behar ditu.</p>	<p>Debes escribir un email a tu amigo/amiga. (90-100 palabras)</p> <p>Situación. Las relaciones entre chicos y chicas son cada vez más difíciles. Por una parte, están las presiones de la sociedad. Por otra, la digitalización no ayuda a entablar relaciones reales.</p> <p>Tarea. Escribe un email a tu amigo/amiga intentando convencerle de asistir a una conferencia sobre las dificultades en las relaciones entre chicos y chicas. Explícale el interés que tiene el tema, las presiones que ejerce la sociedad, las dificultades que se encuentran para relacionarse amistosamente entre distintos sexos en todas las edades. Convéncele de lo importante que es tener información sobre este tema para hacer frente a las influencias de la sociedad.</p> <p>El texto debe tener entre 90-100 palabras.</p>

TESTU LUZEA (5 puntu)	TEXTO LARGO (5 puntos)
<p>Iritzi artikulu bat idatzi blog batean argitaratzeko. (180-200 hitz)</p> <p>Egoera. Gizarte honetan aurreiritziak daude neska eta mutilen arteko</p>	<p>Debes escribir un artículo de opinión para publicarlo en un blog. (180-200 palabras)</p> <p>Situación: Vivimos a contrarreloj. Todo</p>



<p>harremani buruz. Aurreiritzi horiek askotan lagun artean izan ditzakegun harremanak baldintzatzen dituzte. Ez gara ausartzen harremanetan haratago joaten jendearen iritzien beldur. Horregatik, harreman asko moztu egiten dira edo azalean geratzen dira.</p>	<p>lo tenemos que hacer ya. Lo tenemos que conseguir al instante. Los avances tecnológicos, sobre todo en el campo de la comunicación, no lo han mejorado. Todo lo contrario, lo han hecho más notable, más crónico. Se hacen más cosas en menos tiempo.</p>
--	--

<p>Ataza: Neska eta mutilen arteko harremani buruzko iritzia emango duzu blog batean.</p> <p>Hurrengo galdera eta esaldiak lagungarriak izan daitezke zure idatzirako:</p> <p>Txikitatik jendeak neskak eta mutilak ezberdintzen ditu tratuan, jantzi ezberdinak, jolas ezberdinak... Gure zaletasun eta ohiturak guk aukeratzen ditugu edo gizartearen presioagatik hartzen ditugu?</p> <p>Ingurukoek etengabe iritzia ematen digute neska eta mutilen artean ditugun harremani buruz. Jendeak esaten duenak gure harremanetan eragina al du? Neska eta mutilen artean ezin al du adsikidetasun harreman soila egon? Nola egin dezakegu ihes gizarteak gai hauetan egiten duen presio horretatik?</p>	<p>Tarea: Vas a escribir tu opinión sobre las relaciones entre chicos y chicas para publicarla en un blog.</p> <p>Las siguientes preguntas y afirmaciones pueden ser de ayuda para escribir tu opinión:</p> <p>La gente da un trato de diferencia a los niños y niñas desde pequeños, diferente forma de vestir, juegos diferentes... ¿Nuestras costumbres y aficiones son por elección propia o por la presión de la sociedad?</p> <p>Los que nos rodean no dejan de darnos su opinión sobre nuestras relaciones con chicas o chicos. ¿Lo que dice la gente afecta a nuestras relaciones? ¿No puede haber una relación de amistad entre chicas y chicos? ¿Cómo podemos escapar de la presión que ejerce la sociedad sobre estos temas?</p>
---	--

Eta kontuan hartu aholku hauek:/ Tened en cuenta estos consejos:

<ul style="list-style-type: none"> • Boligrafoz idatzi • Saiatu garbi idazten. • Gogoratu gutxieneko hitz kopurua idatzi behar duzula. • Zirriborro bat egin ideiak hobeto antolatzeko. • Zirriborroa azterketarekin batera eman. • Idazlana bukatzen duzunean, begiratu entregatu baino lehen. • Zure idazlana zuzentzeko honako irizpide hauek hartuko dira kontuan: <ul style="list-style-type: none"> ○ Ea eskatutakoa bete duzun. ○ Ea testu egokia eta koherentea idatzi duzun. ○ Ea testu zuzena idatzi eta lexiko eta egitura egokiak eta aberatsak erabili dituzun. 	<ul style="list-style-type: none"> • Utilizar bolígrafo para escribir. • Intentar hacer una letra clara. • Recordar que es necesario llegar a la cantidad de palabras solicitadas. • Es conveniente hacer un borrador para organizar las ideas. • Entregar el borrador con el examen. • Antes de entregar la prueba, revisar lo escrito. • Para corregir el escrito se tendrán en cuenta estos criterios: <ul style="list-style-type: none"> ○ Contestar a lo solicitado. ○ Escribir un texto adecuado.
---	---

	<ul style="list-style-type: none">○ Utilizar una lengua correcta, coherente y rica.
--	---



IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:

SINADURA/ FIRMA:

TESTU LABURRA (5 puntu) / TEXTO CORTO (5 puntos)

E-maila lagun bati hitzaldi batera joateko/ Email a un amigo para ir a una conferencia.
(90-100 hitz/palabras)

.....
.....
.....

5.....
.....
.....
.....

10.....
.....
.....
.....

15.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....



IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:

SINADURA/ FIRMA:

TESTU LUZEA (5 puntu)/ TEXTO LARGO (5 puntos)

Blog batean argitaratzeko artikulua / Artículo para publicarlo en un blog. (180-200 hitz/palabras)

.....

.....

.....

.....

5.....

.....

.....

.....

10.....

.....

.....

.....

15.....

.....

.....

.....

20.....

.....

.....

.....

25.....

.....

.....

.....

30.....

.....

.....

.....

.....